

BERRITIC 2008-2009 BEKEN OINARRIAK

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- HELBURUA

Dokumentu honen helburua da **BERRITIC** Programaren oinarriak eta deialdia arautzea, Bizkaiko TEIC sektorearen lerketa, Garapena eta Berrikuntza sustatu eta profesionalen prestakuntza indartzeko, enpresen beharretara egokituz.

2.- PARTE-HARTZAILEAK

BERRITIC programan parte har dezakete: sektore honetako Bizkaiko enpresa guztiek, titulua izan (Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edo Goi-mailako tituludunak) eta TEIC sektoreko Bizkaiko enpresetan (teknologia elektronikoen, informatikoen edo telekomunikaziotakoen sektorea) txandakako trebakuntza (praktikak) egin nahi dutenek edo aipaturiko sektorearekin batera Bizkaiko enpresak sustatzeko proiektuak (ekimena) garatu nahi dituztenek.

3.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA EPEAK

Txandakako trebakuntzarako bekak 4.000 eta 8.000 euro artekoak izango dira, 6-12 hilabeteko iraupenarekin. Enpresak sustatzeko proiektuetarako bekak 10.000 eta 14.000 euro artekoak izango dira, 12 hilabeteko iraupenarekin.

Beka ez da bateragarria ordaindutako beste inongo lanekin edo proiektu bererako beste inongo laguntzarekin.

4.-ESKAERAK

Eskaerak aurkezteko epea urte guztian egongo da zabalik. Telematikoki egin behar da aurkezpena, programaren www.berritic.com web orriaren bidez.

Eskaera egiten duena da egindako adierazpenen egiazkotasunaren erantzule, eta, hautatua izanez gero, eginiko baieztapenen lekukotasuna eman behar du, dokumentu bidez.

5.- ESLEIPENDUNEN HAUTAKETA

Hautapen Batzordeak ebaluatuko ditu eskaerak. Batzorde horrek eskumen osoa du erabakiak hartzeko eta, trebakuntza-bekak baloratzeko, kontuan hartuko ditu espediente akademikoak, atzerriko hizkuntzen ezaguerak eta IKT sektorean aurretik izandako esperientzia. Halaber, enpresak sustatzeko proiektuetarako eskaerak baloratuko ditu, kontuan hartuz produktu, zerbitzu edo prozesuaren berrikuntza-maila, enpresa-proiektuaren bideragarritasuna eta balio erantsia.

Hautapen-batzordeak, bekadunak hartzen dituzten enpresek eta tutore akademiko eta industrialek elkarrizketa pertsonalak egin diezazkiekete hautagaiari. Elkarrizketa horien helburua da aztertzea bat datozen hautagaiak proiektuek eskatzen duten profil profesionalarekin. Batzordearen balorazioa loteslea izango da beka emateko.

Eskatzaileak onartu egiten ditu, eskatzaile den aldetik, batzordearen irizpideak eta erabakiak, emaitza edozein dela era.

6.- TREBAKUNTZA OSAGARRIA

Esleipendunek trebakuntza pertsonalizatua jasoko dute, enpresa bakoitzaren, garatu beharreko proiektuaren eta profesionalaren gaitasunaren arabera betiere. Trebakuntzaren gaiak eta iraupena GAIK koordinatuko ditu, sektorearen beharrak eta bekadunen profilak bateratuz. Bekaren zati bat koordinazio horren kostuak ordaintzeko erabil dezake GAIK.

7.- ESLEIPENDUNEN EBALUAZIOA ETA TUTORETZA

Esleipendunen errendimendua eta jarrera ebaluatuko dira trebakuntza-faseetan, enpresan/erakundeetan egiten dituzten praktikan eta enpresa-sustapeneko proiektuaren garapenean.

Trebakuntza praktikoa egiteko hautatutakoek tutore bat izango dute helburuko enpresan/erakundeetan., **BERRITIC** programaren antolatzaileekin batera, eginkizun hauez arduratuko da tutorea:

- a) Lehen hautaketan hartutako hautagaiaren edo esleipendunaren jardura antolatzea, hura enpresan dagoen bitartean
- b) Lehen hautaketan hartutako hautagaiaren edo esleipendunaren jarduerak gainbegiratzea
- c) Ezarritako prestakuntza-plan praktikoa betetzea
- d) Praktikak egitean jazo daitezkeen gertakarien berri ematea. Horrez gain, lehen hautaketan hartutako hautagai eta esleipendun guztiek harremanetarako pertsona bat izango dute GAIAn, harrera-enpresetan arazorik sortuz gero haiek konpontzeko.

Enpresa-sustapeneko jarduerak IKT sektoreko estrategiekin batera garatzeko aukeratuak izan direnek hainbat tutore izango dituzte: tutore industrial aholkularia, tutore akademikoa eta GAIA tutorea. Tutore horiek, ekimen-eragileekin eta **BERRITIC** programaren antolakuntzarekin batera, eginkizun hauez arduratuko dira:

- IKTei lotutako proiektu, produktu eta negozio-ideia berrien sorrera sustatzea.
- Enpresa-proiektua garatzeko lehiatzen ari direnei laguntza integrala ematea (informazioa, orientazioa, esperientzia, ezagutza eta osaketa).
- Ekintzaileekin partekatzea baliabideak eta ahalmenak. Sarean haztea.
- Ekintzaileei zerbitzuak eskaintzeko eta haiekin lankidetzan jarduteko aliantzak egiten saiatzea.
- Enpresak sortzeko diru-laguntzen izapideak egiten laguntzea eta horien berri ematea (tokiko eragile espezializatuekin batera).

II.- HAUTATUTAKOEN BETEBEHARRAK

BERRITIC programan parte hartzeko hautatutako pertsonen betebeharrak hauek dira:

- a) Beka jasotzeko bateraezintasunik ez dagoela eta Programan parte hartzeko konpromisoa hartzen dela adierazten duen zinpeko aitortzea sinatzea.
- b) Emandako beka oinarri hauetako I. eranskineko ereduaren arabera onartzea, esleipenaren berri posta elektronikoko bidez ematen denetik kontaktzen hasita hiru laneguneko epean.
- c) Programarako zehaztutako Prestakuntza Moduluetan matrikulatzea, bekaren kontura.
- d) Zehaztutako epean eta bekaren izaera errespetatuz, esleitutako prestakuntza-zeregin praktikoak egitea.
- e) Bekaren zenbatekoa dagokion helbururako erabiltzea: matrikulak, mantenu-gastuak, joan-etorriak...
- f) BERRITIC programako antolamenduak eskatutako informazio oro ematea.
- g) Beka emateko kontuan hartutako edo bekaren garapen arruntari eragiten dion egoera ororen aldaketaren berri (objektiboa zein subjektiboa) BERRITIC programako antolatzaillei ematea.
- h) Helburu bererako edo antzekoren baterako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako diru-laguntzen, sarreraren edo baliabideen berri BERRITIC programako antolamenduari ematea.
- i) BERRITIC programaren antolatzailleek emandako argibideak betetzea, bereziki, bekak irauten duen bitartean sor daitekeen jabetza intelektualari eta industrialari eta konfidentzialtasun-betebeharrari buruzkoak.
- j) Enpresa hartzaileko konfidentzialtasunarekin lotutako dokumentuak sinatzea, eta, edonola ere, isilpean gordetzea prestakuntza praktikoan eskuratzen den informazio oro.
- k) Onartzea bekak irauten duen bitartean egiten diren txostenak argitaratzeko eskubidea dutela BERRITIC programaren antolatzailleek.
- l) Tutoreek eta prestakuntzako arduradunek emandako argibideak betetzea.
- m) Eskatutako lanak hitzartutako epeetan aurkeztea, eta, bereziki, egindako jarduerari buruzko hileko txostena (enpresako tutoreak baliozkotua) aurkeztea, baita praktiketan egindako jardueraren azken azalpen-memoria eta garrantzizkotzat jotzen den beste zeinahi alderdi ere.
- n) Oker jasotako zenbatekoak itzultzea, hala badagokio.

III.- BEKAREN KUDEAKETA

8.- BEKAREN ORDAINKETA

- a) Bekaren % 15 GAIARI bidali behar zaio, berariazko trebakuntzako matrikulen ordainketari aurre egiteko. Erabiltzen ez den zenbatekoaren gainerakoa praktiketako azken hilabeteko ordainketarekin batera pagatu behar da. Halaber, % 15eko zenbateko hori praktiketarako zehaztutako denbora betetzen dela bermatzeko erabili behar da. Bekadunak ez badu betetzen enpresaren hitzartutako trebakuntza praktikoko programaren % 75, ez zaio ordainduko.

Enpresak sustatzeko proiektuei dagokienez, GAIARI % 20 dagozkio, eta ordainketa-sistema bera eabiliko da.

- b) Bekaren % 85 praktika-aldiak irauten duen hilabeteen artean zatituko da, eta bekadunari hilero-hilero dagokion zatia ordainduko zaio, betiere aurreko hileko jarduera-txostena jaso eta bekadunak bere betebeharrak betetzen ditu.
- c) Bekaren lehen ordainketa praktikak hasi ondorengo lehen hilaren amaieran egingo da.

9.- BEKAREN ZENBATEKOA ZERTARAKO ERABILI BEHAR DEN

Bekadunak bekaren bidez jasotzen duen diru-kopurua bekari lotutako gastuak ordaintzeko erabiliko da. Beka dela-eta sortzen diren gastu guztiak (besteak beste, matrikulak, ostatua, mantenua, dietak eta sor litezkeen beste erantzukizun batzuk) bekadunaren kontura izango dira. Bekadunak hartzen dituzten enpresek beren borondatez ordain diezazkiokete bekadunari proiektuan sortutako gastuak (bidaiak, egonaldiak...). Horrek, ordea, ez du inola ere adierazten behin betiko lan-loturarik dagoenik bi aldeen artean.

10.- ASEGURUA

GAI Ak kontratatuko ditu istripu-aseguruak eta bidaiako asistentzia-aseguru osagarria bekadunaren alde.

IV.- BEKEI DAGOZKIEN BESTE GAI BATZUK

11.- ESTATUTU EDO KONTRATU BIDEZKO LOTURARIK EZ

BERRITIC beka jasotzeak ez dakar kontratu edo estatutu bidezko loturarik esleipendunaren eta GAIAREN, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta/edo helburu-epresaren artean.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta GAIak ez dute obligaziorik **BERRITIC** programatik edo programa horrekin lotutako jardueretatik zuzenean edo zeharka eratorritako kalte-ordainak hirugarrenei ordaintzeko.

12.- KONTROLA ETA SEGIMENDUA

Bekadunek egin beharreko jardueren kontrola eta segimendua egitea **BERRITIC** programako antolatzaileei dagokie. Bekei buruzko egoki deritzeten ikuskapenak egiteko eskumena dute antolatzaileek.

13.- BEKADUN-IZAERAREN GALERA

13.1 Bekadun-izaera bekaren iraupena amaitutakoan galduko da, baita arrazoi hauengatik ere:

- a) Espresuki edo adierazi gabe uko egiteagatik bekari.
- b) Betebeharrak ez betetzeagatik edo beka emateko baldintzak aldatzeagatik.
- c) Bat-bateko bateraezintasunagatik.

13.2. Bekadun-izaera galtzen bada, ez bada bekaren iraupena amaitu delako, hileroko ordainketa eten egingo da eta **BERRITIC** programarekiko konpromiso gisara GAIari bidalitako zenbatekoa ez da ordainduko.

13.3 Diru-laguntza emateko baldintzak ez direla betetzen egiaztatzen bada, jasotako diru-kopurua eta dagozkion legezko interesak itzuli egin behar zaizkio **BERRITIC** programari.

V- AZKEN XEDAPENAK

14. PUBLIZITATEA

Deialdi honetako erabakiak eta ekintzak Interneteko www.berritic.com helbidean argitaratuko dira. Helbide horretan bertan agertuko da programari buruzko informazio interesgarria.

15- GENEROAREN ERABILERA

Dokumentu honetako gaztelaniazko testuan genero maskulinoan (neutroa) egin diren adierazpenak genero femeninoan ere badaudela jo behar da, titularraren sexuaren arabera.

16.- ARAUBIDE JURIDIKOA

BERRITIC bekak oinarri hauen (1) eta horri buruz indarrean dagoen legeriaren (2) bidez arautu behar dira.

17.- DATUAK BABESTEKO KLAUSULA

BERRITIC programaren sustatzaileek datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legeria erabat betetzen dute, eta emandako datuei buruzko konfidentziasuna gordeko dutela hitzematzen dute.

BERRITIC programaren sustatzaileek dagozkien neurri teknikoak hartu dituzte segurtasun-maila babesteko, tratatutako datu pertsonalen izaeraren eta tratamenduaren egoeren arabera, ahal den neurrian eta teknikaren egoeraren arabera, daturik ez aldatzeko, galtzeko edo baimenik gabe tratatzeko edo eskuratzeko.

Eskatzaileen datu pertsonalak eta curriculumekoak, deialdi honen oinarrietan edo eskaera-fitxan aipatzen diren egiaztagirietan datozenak, GAIAREN fitxategian sartuko dira. Fitxategi hori Datuak Babesteko Erregistro Orokorrean erregistratuta dago. GAIak deialdia egiteko, bekak emateko eta haiek kudeatzeko garatzen dituen zerbitzuak emateko erabiliko dira datu horiek.

BERRITIC eskatzaile batek datu horietako batzuk kendu, eskuratu, zuzendu edo baliogabetu nahi baditu, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren arabera, idatziz jakinarazi behar dio GAIARI asmo horren berri.

18.- INFORMAZIO PUBLIKOA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ETA GAIAK, **BERRITIC** programaren sustatzaileak, gizarteari erakutsi nahi diote IKT sektorea gazteen artean sustatzeko duten interesa. Hori dela eta, hainbat komunikazio-ekintza bultzatuko ditu.

Trebakuntza teoriko-praktikorako aldi honek aukera emango die parte-hartzaileei enpresaren funtzionamendua ezagutzeko eta etorkizunean lan-merkatura baldintzarik onenetan sartzeko edo jarduera profesional berri bati ekiteko.

I. ERANSKINA

BERRITIC PROGRAMAREN BEKAREN BANAKAKO ONARPENA

Izen-abizenak:

NAN zenbakia:

Espresuki ZIN EGIN edo HITZ EMATEN du:

- Ez duela ordaindutako lanik egiten.
- Ez duela beste bekarik/diru-laguntzarik jasotzen.
- Ez dela zigortua izan diziplina akademikoko hutsegiteengatik.
- Ez duela galdu beste beka/diru-laguntza batzuk jasotzeko eskubidea.
- Dagokion esleipen-ebazpenean zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituela.
- Beka jasotzeak ez dakarrela kontratu- edo estatutu-loturarik esleipendunaren eta GAIAren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta/edo prestakuntza praktikoko helburu-enpresaren artean.
- Esleitzen zaion trebakuntzan parte hartuko duela.
- Beka bat jasotzen badu, trebakuntza praktikoa esleitzen zaion enpresan egingo duela.
- Enpresak sustatzeko proiektuak egiteko beka bat jasotzen badu, aurkeztutako proiektua garatu egingo duela.

ADIERAZTEN DU

2008ko abenduaren 1ean GAI Ak publikoki deitutako **BERRITIC** programako beka bat jaso duela. Bekaren esleipena www.berritic.com web orrian argitaratu zen. Deialdiko oinarriak ezagutu eta onartzen dituela adierazten du, eta, hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Bekaren zenbatekoa dagokion helbururako erabiltzea: matrikulak, mantenu-gastuak, joan-etorriak... ordaintzeko, alegia.
2. **BERRITIC** programako antolatzaileek eskatutako informazio oro ematea.
3. Beka emateko kontuan hartu zen edo bekaren garapen arruntari eragiten dion egoera oren aldaketaren berri (objektiboa zein subjektiboa) **BERRITIC** programako antolatzaileei ematea.
4. Helburu bererako administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako diru-laguntzen, sarreren edo baliabideen berri **BERRITIC** programako antolatzaileei ematea.
5. **BERRITIC** programaren antolatzaileek emandako argibideak betetzea, bereziki, bekak irauten duen bitartean sor daitekeen jabetza intelektualari eta industrialari eta konfidentzialtasun-betebeharrari buruzkoak.
6. Enpresan konfidentzialtasun-betebeharrarekin lotutako dokumentuak sinatzea, eta, edonola ere, prestakuntza praktikoa egiten den jardueran eskura daitekeen informazio oro isilpean gordetzea.
7. Onartzea bekak irauten duen bitartean egiten diren txostenak **BERRITIC** programako antolatzaileek argitara emateko eskubidea dutela.
8. Tutoreek eta prestakuntza praktikoko arduradunek emandako argibideak betetzea.
9. Eskatutako lanak hitzartutako epeetan aurkeztea, eta, batik bat, praktiketan egindako jardueraren azalpen-memoria egitea praktikak amaitutakoan. Garrantzizkotzat jotzen dituen alderdi oro zehaztuko ditu hor.
10. Oker jasotako zenbatekoak itzultzea, hala badagokio.

Lekua eta data,.....

Bekaduna (Izena eta bi abizenak)